



# ERDI AROKO IBILBIDEAK ARABAN

MAHASTI ETA  
HARRESI ARTEAN



ARABA | **ÁLAVA**  
*Badago zer Ikusi* | *Mucho que Ver*

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava


[www.araba.eus](http://www.araba.eus)


# AURKEZPENA

**Artziniega** eta **Guardia** herriek Arabako lurralde historikoaren muga geografikoak ixten dituzte iparraldetik eta hegoaldeetik, hurrenez hurren. Bien artean ehun kilometro baino zertxobait gehiago dagoen arren, kultura eta historia partekatzen dute: ondo baino hobeto zaindutako Erdi Aroko hiriguneak, defentsarako dorre eta harresiak, eta kalitate handiko ardo bihurtzen diren mahastiak.

Bi udalerrri horietara joanez, bisitariak aukera aparta izango du ondare oparoagatik ezagunak diren Arabako beste herri eta hiribildu harresidun batzuk ezagutzeko, besteak beste: Gatzaga Buradon, Labraza, Antoñana eta Urizaharra. Gasteizko hiria ere ibilbide horretan sartzen da; izan ere, Arabako hiriburua eta kultura bizitzaren erdigunea da, eta Erdi Aroko Almendra ere bai.

Mahastien eta harresien artean kotxez egiteko hiru ibilbide proposatzen dizkizuegu, Erdi Aroarekin loturiko herriak eta intereseko beste gune batzuk ezagutu ditzazuen, hala nola, Gatz Harana, Santa Katalina Lorategi Botanikoa, Alaitzako eta Gazeoko horma-pintura gotikoak eta Trebiñuko Konderriko eliza erromanikoak.









ARTZINIEGA



VITORIA-GASTEIZ



GUARDIA



## ARABA

ardoen lurra dugu, eta, Guardia eta Artziniega, lurralde historikoko jatorrizko bi deituren erreferentziatzko herriak. **Guardia Arabako Errioxako eskualdeko hiriburua da eta Errioxa jatorrizko deitura kalifikatua (Errioxa JDK) banaturik dagoen hiru azpieremutako bat. Artziniega eta Aiaraldea, berriz, Arabako Txakolinaren Jatorrizko Deituraren etxeak ditugu.**

Errioxa JDK-k laurogeita hamar urte baino gehiago ditu, eta, beraz, **Espainiako jatorrizko deiturarik zaharrenetakoa dugu.** Horrez gain, zortzigarrena da munduko deiturarik onenen artean, denbora luzean goi mailako kalitatea izateari eusten diolako bere ardoetan. Arabako Errioxa Errioxa JDKn dago sartuta, eta, gutxi gorabehera, 300 upeltegi eta 11.500 hektarea mahasti ditu.

Arabako Errioxako ardoaren ezaugarriak dira: artisau eran egina dagoela, ardogileek arreta eta kontu handia jartzen dutela ardoa ontzeko, paisaia onik zaintzen dela eta ekoizpen mugatua duela. Eskualde honetako ardoek duten nazioarteko ezagutzaren oinarria tempranillo, Garnatxa, mazuela

eta Graciano bariatateetako mahatsez elikatutako ardo beltzen kalitatea da. Dena den, badaude ardo zuri berri eta berriztuak ere, batez ere biura bariatatekoak.

**Arabako Txakolinaren jatorrizko deitura gaztea da oraindik, eta hedatze bilakaera bete-betean dago.** 2001ean jaio zen, laurogeita hamareko hamarkada amaieran, Aiaraldeko ekoizle artisau talde batek beren indarrak bildu zituenean euskal baserriei lotutako tradiziozko ardo bat egitea berreskuratzeko; izan ere, gainbehera bizian zegoen ozta-ozta 5 hektarea mahastirekin.

Egun, Arabako Txakolinak baditu ia 100 hektarea mahasti, 8 upeltegi eta kalitatezko ardo zuriaren ekoizpen handia, 600.000 botila ingurukoak. Jakingura dutenentzako ohar bat. Etimologian adituen ustez, “txakolina” hitza “etxakoa” eta “etxeko egina” hitzetatik dator, eta hortik “etxakon” eta gero “txakon” hitzetarako bilakaera izan zuen, azkenean, “txakolin” hitzera heltzeko.

Arabako Erdi Aroko Ibilbideei esker, harresiz inguratutako zazpi herri eta hiriren ondare artistiko eta historikoa ezagutu ahal izateaz

gain, ardoaren kulturen sakondu, mahatsondo artean markatutako ibilbideetan oinez edo txirringaz ibili, ehunka urteko upeltegi eta upeltegi abangoardistak bisitatu eta, jakina, Arabako Errioxako ardoaren eta Arabako Txakolinaren bikaintasunak dastatu ahal izango ditugu bertako produktuekin lagunduta.

Erdi Aroa ardoaren historiako garai garrantzitsua izan zen Europako zati handi batean eta Araban. Arabako monasterio eta baserriek lan izugarria egin zuten, Guardian eta Arabako Errioxako gainerako herrietan eta Artziniegan eta Aiaraldean, ardoa egitean tradizioari eta jakinduriari eusten, eta horrelaxe berresten dute hainbat eta hainbat agiri historikok eta administrazio erabakik.

**Aiaraldean txakolinaren elaboraziori buruzko lehenengo idazkiak IX. mendekoak dira.** Hain zuen garrantzia ekoizpenak, ezen ordenantza batzuetan eskualdekoa ez zen ardoaren sarrera debekatzen baitzuen bertakoa amaitu arte. Gauza bera esan daiteke Arabako

Errioxako ardoaz: **Nafarroako errege-erreginek ardo horien ezagutza juridikoa egin zuten XII. mendean**, eta mende bat geroago, jada, beste eskualde batzuetara egindako esportazioei buruzko agiriak ageri dira.

Nola eta zergatik da ardoaren kultura Arabako Errioxako herrien eta biztanleen izaeraren zati? Erromako Inperioa erori ondoren, ardo beharra egon zen mezetako sagararako. Horren ondorioz, erlijio ordenek mahatsondo landaketari eutsi zioten Iberiar penintsulan eta Europan, eta batez ere Errekonkistaren ondoren hasi ziren mahastiak landatzen eta Errioxako lehen ardoak sortzen.

Arabako Errioxa eta Aiara bisitatzeak bide ematen dizu Errioxako ardoaren eta Arabako txakolinaren historiaren aztarnen bila aritzeko abentura magikoa hasteko. Bi eskualdeetako ardogileen eta ostalarien eskaintza eta aldizka antolatzen diren musika eta ardo jaialdiak, azoka tematiko eta jaiak, ardo horiek protagonista direla, aitzakia ezin hobekak dira bidaia honi ekiteko. **Bidaia zirraragarria benetan!**



# HARRESI ARTEAN ARTZINIEGA

Artziniega hiribildua 1272an Alfonsu X.a Jakintsuak sortu zuen eta laster haren herrigunea harresiekin eta babes dorreekin gotortu zen. Gaur egungo bisitariek oraindik ere horma horien aztarna batzuk ikus ditzakete, Espainia iparraldean ongien zaindurik dauden Erdi Aroko hirigune historikoetako batean zehar dabiltzala.

Izan ere, Artziniegak ia-ia bere hartantxe gorde du muino baten gaineko Erdi Aroko herrigunea, kale paraleloz osaturiko egitura bereizgarriarekin: goikoa, erdikoa eta behekoa, beren artean "cantón" deituriko kalekzaz komunikaturik. Erdi Aroko egitura ongi gordea eta ondare elementuen kalitatea dira 1995ean monumentu multzo historiko-artistiko izendatu izanaren zioak.

Hiribildu hau merkataritza gune garrantzitsua izan zen Erdi Aroan, eta arrazoi horrengatik hainbat familia noblek beren egoitza bertan finkatzea erabaki zuten. Guztira 46 armarri, hainbat leinurenak, eta hiri etxeak, egoitza-dorreak, jauregiak, errementeria eta beste eraikin



## Arteko Andre Mariaren santutegia.

Santutegi gotiko dotorea. Bisitaria erraz hel daiteke hartara oinez, herriaren erdialdetik abiatuta, hamar minutu eskasean. Gordetzen duen arte elementurik nabarmengarriena XVI. mendearen hasierako erretaula bat da, espainol-flandestar estilokoa, historia eta arte monumentu izendatua, bai eta Eliz Museoa ere, balio handiko eliz artelanak ikusgai dituen.

Santutegiaren ondoan, 500 urte baino gehiagoko arte bat hazten da, "Zuhaitz Berezi" bezala bereziki babesturik dagoena.





**Museo Etnografikoa.** Erakusketa bikaina, 3.700 metro koadro baino gehiagoko eremu batean Artziniegako eta Aiara haran guztiko biztanleen landa eta hiri bizimoduak agertzen dituena. Zaharberitutako eraikin historiko batean kokaturik dago, Arteko Aldapan. Ordutegi eta prezioen inguruko informazioa hemen kontsulta daiteke [www.artziniegamuseoa.org](http://www.artziniegamuseoa.org)

Museoan hainbat jarduera egiten dira urtean zehar: **Museo Bizia** otsailko azken igandean, **Santa Ageda** otsailaren 4an, **pintura lehiaketa** maiatzean, **udako solstizioa** ekainaren 21ean, **Arimen Gaueko bisitaldia** urrian, **txarriboda** edo **txerri sarraskia** azaroan eta **Olentzeroren bisita** abenduaren 24an. .

publiko batzuk Artziniegaren merkataritza historiaren lekuko dira.

Bertako ondareak askotariko estilo eta eskaintzak biltzen ditu, gotiko-errenazimendutik neoklasizismoraino, eta XVI. mendetik XX. mendera arte. Hona hemen eraikin nabarmengarrienak: Ortiz de Molinillo de Velasco-ren dorrea, XVI. mendearen bukaera aldekoa; Ama Agustindarren komentua, XVI. mendekoa; Valle etxetzarra,

#### **Pablo Respaldizaren sutegia.**

Hainbat dokumenturen lekukotasunari esker, badakigu Erdi Aroz geroztik errementariak izan zirela Artziniegan. Pablo Respaldizaren errementeriak, herrigune historikoan, erakusten du nola lantzen zen burdina artisauek, etxeke tresnak, nekazari lanabesak, ferrak, iltzeak, torlojuak eta burdinsareak egiteko.

Sutegia, lehengai berotzen zen lekua, eta ingudea, zeinean nahi zen forma ematen baitzitzaien, tradiziozko lantegi honen osagai nagusiak dira.



XVII. mendekoa; Bengoa dorrea, XVI. mendekoa, eta XVII., XVIII. eta XIX. mendeetako hainbat jauregi armarridun.

Jasokundeko Andra Mariaren parrokiak, XVI. mendekoa denak, erronka egiten dio eliza atariari begira geratzen denari, hain zuzen, topatzea bertako margolarien egindako pinturetan sartutako anakronismoak, hala nola ordenagailua, garagardo botila...

Bisita gidatuak egin daitezke Artziniegako Erdi Aroko herrigunera, Pablo Respaldizaren sutegira eta Arteko santutegira.

- Turismo argibideak eta erreserbak

Tel. 945 396 210

[www.artziniegakoudala.com](http://www.artziniegakoudala.com)  
[www.aiaraldea.org](http://www.aiaraldea.org)

#### **Kexaako monumentu multzoa.**

Artziniegako 11 kilometrotara dago, Aiarako udal barrutian, eta Erdi Aroko arabar eta euskal pertsonaia gailenetako baten oinetxea izan zen: Pedro Lopez de Ayala jauna, alegia. Haren aita Fernan Perez de Ayalak eraikiarazi zuen multzo hau, jauregi gotortuak, Ama Domingotarren komentua, San Joan Bataiatzailearen elizak eta Adatseko Ama Birjinaren kapera-dorretzarzak osatua.

2002an kultur ondasun kalifikatu izendatu zen, bere arte eta historia balioarengatik. Doako ikustaldi gidatuertarako erreserbak egin daitezke 945 399 264 telefonoan. Nabarmenezkoa da kapera-dorretzarreko beheko solairua, non baitaude Ayala jaun-andreen hilobiak, alabastroz tailatuak, eta XIV. mendeko erretaula gotikoaren kopia (jatorrizkoa Chicagoko Arte Galerian, Estatu Batuetan, dago ikusgai).



# Ez geratu hauek egin gabe...

- **Santxotena lantegi-museoa.**

Xabier Santxotena artista, Jorge Oteizaren jarraitzailea, egurraren artisautzari lotutako familia batean jaio zen eta hainbat eta hainbat pieza bitxiren egilea da. Bisitariak museo-lantegi honetan ikusi ahal izango du haren lana, eta, halaber, eta haren bildumaz gozatu ahal izango du, eskultorearekin berarekin batera, bisitaria artearen munduan eskultore bat balitz bezala murgilduko duen esperientzia paregabe eta aparta baten bidez.

[www.santxotena.org](http://www.santxotena.org)

- **Garobel eta Nerbioiko**


**behatokia.** Profil desberdineko mendi multzo itzela, 20 bat kilometroan hedatzen eta Santiago mendia eta Angulo mendatea bereizten duena. Ikuspegiaren artean honakoa dugu nagusia: **Nerbioiko Behatokitik** ikusten dena, zehazki, Delikako arroilaren gainean zintzilik dagoen balkoitik. Bertatik, 300 metroko ur-jauzi ikusgarria ikusteko aukera paregabea izaten da euriteetan.

- **Mendi ibilaldiak.** Artziniegak ibilbide erakargarriak eskaintzen ditu mendian ibiltzeko. **Peñalba mendian** zehar ibiltzea, udalerriko mendirik altuena baita, eta **Mendietara** eta **Soxogutiko** errotrarako bideak, besteak beste.

- **Txakolinaren ibilbidea.**

Txakolina Aiaraldeko produktu tipikoetako bat dugu gaztarekin batera. Esperientzia aparta izango duzu Txakolin upeltegietara eta gaztandegietara bisita egitea produktu horiek nola egiten diren jakiteko.

[www.rutadeltxakoli.com](http://www.rutadeltxakoli.com)



# HARRESI ARTEAN VITORIA-GASTEIZ



Gasteiz ia mila urte dituen hiria da, Nafarroako Antso VI. erregeak 1181ean sortua. Erdi Aroko kale egitura, almendra itxurakoa, bere hartantxe gorde du. Aditu batzuek eusten dioten tesiaren arabera, ordurako babes harresi bat zeukan eta hori erabakigarria izan zen Gaztelako Alfonso VIII.aren osteeak bertako biztanleei zortzi hilabetez jarri zieten setioan, 1200en hiria menperatzea lortu arte.

**Erdi Aroko hiriguneak** oraindik ere historia horren aztarna asko gordetzen ditu. XI. mendeko harresia eta Santa Maria katedrala, XIII. mendekoa, adibide nabarmengarrienetako bi besterik ez dira. **Santa Maria katedralak** bere zaharberritze lanak ikusteko bisita gidatuen programa bat eskaintzen du, Espainia eta nazioarte mailako aitormena duena, eta Paulo Coelho edo Ken Follet bezalako idazleak liluratu eta inspiratu dituena.

Bisitariak bere ibilbidean erakargarri eta edertasun ukaezineko eliza gotikoak ere ikus ditzake, hala nola Done Mikelen

eliza edo Done Petrirena, eta Andatarren dorrea.

Eraikuntza zibilek, hala nola **Kordoi Etxeak**, barruan XIII. mendeko dorre bat daukanak; **Portalea** izeneko eraikin ederrak, XV. mendeko ostatu zaharrak; eta plaza bakarti eta jauretxe ederrek, gudaldiz, jaunez eta elezaharrez beteriko iragan batera eramaten dituzte hiriko bazter hauetatik paseatzen direnak.

Erdi Aroko iraganaz gainera, hiriak beste aro batzuetako aztarnak ere gordetzen ditu, hala nola Errenazimenduko jauregi bikainak, etxe barrokoak eta XIX. mendeko eraikinak.

**Santa Maria katedrala** eta **harresiak** bisitatu daitezke, aldez aurretik Santa Maria Katedrala Fundazioaren telefonoan **945 255 135** erreserba eginda

[www.catedralvitoria.com](http://www.catedralvitoria.com)

Turismo Bulegoak hiriaren bisita gidatuak eskaintzen ditu egunero udako hilabeteetan,





Aste Santuan eta jai zubietan; eta gainerako sasoietan asteazken, ostiral, larunbat eta igandeetan. Haurrentzako bisitak eta bisita tematikoak ere antolatzen ditu urteko hainbat sasoiotan.

Informazioa eta erreserbak

Tel. 945 161 598

## VITORIA-GASTEIZKO TURISMO BULEGOA

Espainia plaza, 1  
01001 Vitoria-Gasteiz  
Tel. 945 161 598

[www.vitoria-gasteiz.org/turismo](http://www.vitoria-gasteiz.org/turismo)  
[turismo@vitoria-gasteiz.org](mailto:turismo@vitoria-gasteiz.org)



## Ez geratu hauek egin gabe...

- **Gasteizko eraztun berdea.** Hiriko itzulinguru osoa egin ezazu parke eta berdeguneetan zehar, hegaztiak edo oreinak ikusten dituzula.  
[www.vitoria-gasteiz.org/anilloverde](http://www.vitoria-gasteiz.org/anilloverde)
- **Artium, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa.**  
[www.artium.org](http://www.artium.org)
- **Bibat.** Fournier Karta Museoa eta Arkeologia Museoa biltzen ditu.
- Gozatu **ohiko eta miniaturako gastronomia** goxoaz hiriko taberna eta jatetxeetan.



# HARRESI ARTEAN GUARDIA

Guardia Arabako hegoaldean dago, Arabako Errioxako leku pribilegiatu batean. Eskualdearen erdian duen kokapena bat dator sortzailearen izaera borrokalariaekin eta Nafarroako errege-erreginek eman zioten defendatzeko eginkizunarekin.

Tradizioak esaten duenez, Sancho Abarka Nafarroako erregeak toki horretan gaztelu bat eraiki zuen X. mendean, hegoaldea

Nafarroako Erresumatik babestu eta defendatzeko. Antso VI.ak, Jakitunak, 1164an Guardiari forua eman eta hiribilduaren maila eman zion.

Antso VII.ak, Indartsuak, harresi batekin gotortu zuen hiribildua XIII. mendean, baina oraindik ezin hobeto dago zainduta, XIX. mendean izandako Independentzia gerran eta Karlistadetan sortutako kalteak gorabehera.

**Erregeetako Andre Mariaren eliza.** XII. eta XVI. mendeen artean eraikitako tenplua, estiloak nahasten dituena. Erretaula nagusia, Juan de Bascardok egina, XVII. mendekoa da, baina horren benetako altxorra eliza atari gotikoa da, XIV. mendearen amaieran harriz egina eta bere polikromia gordetzen duena. Ate alboetan, hamabi apostoluen irudiak ikus daitezke, eta Erregeetako Andre Mariaren eskultura aparta, ate gurutzean. Tinpanoa Ama Birjinaren bizitzako irudiz beterik dago, eta arkiboltak, berriz, landare eta irudiekin apainduta daude. XVI. mendean egin zen eliza atariaren itxurak artelan bikain hori gorde du.

---

## • Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak Turismo Bulegoan 945 600 845





**Done Joanen eliza.** Eliza-gotorlekua, gurutze latindarreko oinplanoa, hiru abside eta gurtzadura dituena. Hegoaldeko edo "aitona-amonen" eliza atea estilo gotikokoa da eta Deikundea irudikatzen duten hiru zutabez apainduta dago. Erretaula, berriz, barrokoa da, eta Done Joan Bataiatzailearen omenez egina. Elizaren oinarrian, barrokoaren amaierako Pilarren Kapera dago,

eliza ate gotikoa suntsituz eraiki zena. Oraindik ere haren ate gurtzearen irudia geratzen da. Dorre gotikoa harresiaren ateetako bat izan zen, eta XVI. mendean eraberritu zen egun duen kanpandorre eginkizuna betetzeko.

.....  
• **Bisita gidatuak**

Informazioa eta erreserbak Turismo Bulegoan 945 600 845



**Abade dorrea.** Jatorri militarrekoa da. XIII. mendeko dorre-gaztelua dugu, Guardiako defentsua sistema osatzen zuena. Tradizioz abade dorre izenez ezagutzen da, antzinako monasterio edo abadia zegoelako bertan. Hainbat solairuko eta lau angeluko oina du, arku zorrotzez zulaturik. Monumentuak Kantabriako mendilerroaren eta mahastiaren ikuspegi harrigarriak eskaintzen ditu.

.....  
• **Bisita gidatuak**

Informazioa eta erreserbak Turismo Bulegoan 945 600 845



Erdi Aroan eta gaztelauen eta nafarren arteko borroken ondorioz, Guardiak behin eta berriz izan zuen jabe aldaketa, 1461ean Gaztelarena behin betiko izan arte. 1486an sartu ziren Guardia eta bere herrixkak Arabako probintzian eta bere ermandadeetan.

Guardiak Erdi Aroko trazadurari eusten dio: hiru kale nagusi ditu, estu eta luzeak, plaza eta kalekhen bidez lotzen direnak. Dorre handi batzuk eta herrira sartzeko bost ate mantentzen dituen harresi "zaharrak" inguratutako multzo guztia. Erdi Aroko hirigintza lan honen ganean eraiki dira udalerriko etxeak garai eta estilo desberdinetan.

**Done Joanen eta Erregeetako Andra Mariaren elizak**, Erdi Aroan eraikiak, monumentu garrantzitsuenak dira. Batik bat, azken hori nabarmentzen da, eliz

**Primizia etxea.** Guardiako eraikin zibil zaharrena dugu, XV. mendearen hasierakoa edo XVI. mende amaierakoa. Izen hori hartzen du hamarrenen edo primizien zergak biltzen zirelako bertan. Paganos kalean dago, eta oin bakarrekoa da. Horrez gain, harlanduzkoa da eta ate zorrotz gotiko du.

- Bisitak etxera eta upeltegira  
Tel. 945 621 266

atari gotiko polikromatu handia duelako.

XVI, XVII eta XVIII. mendeak eraikin askotan islatzen dira, horien fatxadetan ezkutu ederrak eta teilatu hegal landuak ikus baitaitezke. Horien artean, Plaza Nagusiko antzinako **udaletxea** nabarmentzen da, bai eta **Samaniego Jauregia** ere; izan ere, izen hori hartzen du, hor jaio zelako Félix María Sánchez Samaniego alegialari ospetsua.

Herriko lur guztiaren azpitik familia upeltegiek edo kobazuloek osaturiko zuloz beterik dago. Horietan, eta ez orain dela urte asko arte, familia horien altxorrik estimatuena egiten eta gordetzen zen: ardoa.

# no te puedes perder...

- **Plaza Nagusiko karilloi erlojua.**

Guardiako dantza taldeko dantzariak irudikatzen duten automatak 12:00etan, 14:00etan, 17:00etan eta 20:00etan ikus daitezke.

- **La Barbacana urmael zeltiberiarra.**

Informazioa eta erreserbak turismo bulegoan. Telefonoa 945 600 845

- **Hoya aztarnategi arkeologikoa.**

Informazioa eta erreserbak: 945 621 122 / 945 181 918

- **San Martín, El Sotillo, El Alto de la Huesera, Hechicera (Bilar) trikuharriak.**

- **Guardiako aintziren biotopo babestua.**

- **Villa Lucía Ardoaren Zentro Tematikoa.** Informazioa eta erreserbak: 945 600 032

- **Bisitatu daitezkeen upeltegiak.**

Turismo bulegoak horien zerrenda bat du. 945 600 845

[www.rutadelvinoderiojaalavesa.com](http://www.rutadelvinoderiojaalavesa.com)

- **Bidexkak.** GR-38 Ardoaren eta arrainaren ibilbidea eta GR-120 Inaziotar Bidea.

GUARDIAKO TURISMO BULEGOA

[www.laguardia-alava.com](http://www.laguardia-alava.com)

Tel. 945 600 845



# 1. IBILBIDEA

## GATZAGA

## BURADON

Gatzaga Buradon herri txiki bat da, Arabako Errioxakoa, eta, administrazioz, Bastidako Udalerriarena da. Buradongo kastroan eta gazteluan Burdin Arotik bizi izan da jendea; IX. mendean, berriz, Nafarroako Erresumaren defentsa gotorlekuak izan ziren botere musulmanaren kontra; oraingo kokagunea, gatzagen eta iturburuaren ondoan, 1264tik aurrerakoa da.

Gaztelako Sancho IV.a erregeak, XIII. mendean, hiribilduaren titulua eman zion, Gaztelako eta Nafarroako erresumen arteko mugan egonik zeukan garrantzi geoestrategiko eta ekonomikoagatik. Defentsa harresi bat dauka, jatorrizko lau ateetako bi gordetzen ditu, eta Erdi Aroko trazadurak onik iraun du; ingurune naturala ere ikusgarria du, Toloñoko mendilerroaren hegalean kokaturik.

Hiribilduaren barnean nabarmentzekoak dira:

**Sortzez Garbiaren parrokia**, XVI. mendekoa; aipatzekoak ditu erretaula barrokoa, bi kapera



Berpizkundekoak, eta bi hilobi XVII. mendekoa, bikainak, arabar platereskoaren bi obra ederrenetakotzat joak.

**Erromesen antzinako ospitalea**, XV. mendekoa. Hiribilduko eraikuntza zibil zaharrena da, eta aterpetxea delarik, Donejakue bideko mugarri.

**Oñatiko kondeen jauregia**, XVII. mendekoa, Sarmiento, Aiara eta Gebaratarren Dorrearen inguruan eraikia (XIV. mendea).

---

### BISITAK

- Harresietara eta jauregira sartzeko, "El Rincón de Buradón" jatetxe-ostatuan eskatu behar duzue.  
Tel. 616 056 710
- Bisita gidatuarekin monumentuetara sartu nahi izanez gero, hitzordua egin behar duzue Bastidako Thabuca Wine Tours enpresarekin.  
Tel. 945 331 060  
[www.thabuca.com](http://www.thabuca.com)

---

### BASTIDAKO TURISMO BULEGOA

Tel. 945 331 060

[www.labastida-bastida.org](http://www.labastida-bastida.org)





Gatzaga Buradonetik Gasteizerako bidean, honako hauek proposatzen dizkizuegu ikusteko:

### Gatz Harana

Gatz Harana **Gesaltza Añanako** herrian dago, eta Europako kultur paisaia ikusgarrienetakoa eta ondoen kontserbatuenetakoa du, harmoniaz konbinaturik bere arkitektura berezia, 1.200 urteko historia gatzaginean eta natura ingurua.

Gatz Harana dagoen lekua, duela 200 milioi urte, itsaso zabala zen, eta, gaur egun, aire libreko monumentu bat da: 5.000 gatz larrain ditu, eta haietan ur gazia isuri eta lurrunketaz gatza lortzen da, eta, zurezko kanalen sare batekin, ura banatzen da haranean zehar.

Bisitaria historian zehar ibil daiteke pasieran, leku bakan eta berezi honetako arkitektura harrigarrian zehar, oin eta eskuak gatzuretan busti, eta bertatik bertara ezagutu milaka urteko lanbidearen hasimasiak.

Ordutegi eta bisiten gaineko informazioa

[www.vallesalado.com](http://www.vallesalado.com)

### Santa Katalina lorategi botanikoa

Santa Katalinako lorategi Botanikoa Tresponde herrian dago. Erdi Aroko historia aurkituko duzue bertan, XIII. mendeko monasterio baten hondar egokituak eta hainbat uharka, eta balore ekologiko eta ingurumenezko handia, ia mila landare espezie baitaude bost kontinenteetatik ekarriak.

Pribilegiatua da, munduko lehen izar parketatat onartua izan zelarik, zerua behatzeko baldintza egokiak baititu. Bisitarietara, zeruan izarrak eta konstelazio garrantzitsuenak ezagutzeko tresneria eskaintzen zaie.

Ordutegi eta bisiten gaineko informazioa

<http://irunadeoca.com>



## 2. IBILBIDEA

# URIZAHARRA, TREBIÑU



**Urizaharra** Nafarroako eta Gaztelako antzinako erresumen arteko muga-mugan dago, bidegurutze estrategiko batean; horretxek eragin zuen gehien Urizaharraren Erdi Aroko historian. Tradizioak dio nafar erregeek sortu zutela, baina herria erresuma baten eta bestearen eskuetara ibili zen XIII. eta XIV. mendeetan, azkenean Gaztelaren esku geratu arte behin betiko.

Karlo II.a nafar erregeak bihurtu zuen gotorleku, XIV. mendearen hasieran, harresi, bastioi eta gezileihoz hornituz. Gaur arte, hegoaldeko atea bakarrik iraun du, zeren gainerako harresiak suntsitu egi baitziren Karlistadetan; nolana ere, hegoaldeko ate horretatik antzeman dezakegu zer neurritakoak ziren dorre handiz hornitu defentsa haiek.

Urizaharra natur ingurune pribilegiatu batean dago kokatuta, Kantauri mendilerroaren oinean; baditu XVI. mendeko herri arkitekturaren zenbait ale, eta Hijarko dukearen etxea da horien artean nabarmentzekoa.

Igokundearen gure amaren eliza ere nabarmentzekoa da, bere bi atariekin: hegoaldekoa, XIII. mendekoa, kutsu erromanikoak dituena, eta iparraldekoa, XVIII. mendekoa.

Ez gero ikusi gabe utzi...

**Irin errota**, herritik Gasteizerako bidean errotaren ondoko iturburu bateko uraren indarrez dabilena.

**Mendi ibilaldiak** Herrerako



mendatearen eta GR1 mendi-bide historikoaren inguruan.

Arabako Errioxako ikuspegi panoramikoak **Errioxako Balkoitik**, Herrerako mendatetik hegoaldera doan bidea hartu eta metro batzuetara.

## **Erromanikoa Trebiñuko konderrian**

Urizaharra eta Gasteiz artean, errepideak Trebiñuko konderria zeharkatzen du, Burgosek Arabaren bihotz-bihotzean duen enklabea; bertan, bisitariak badituzke arrazoi pisuzkoak geldialdi bat egin eta herriak, multzo arkeologikoak eta eliza erromaniko bikainak miresteko.

Trebiñu da enklabearen hiriburua, eta bertan egin beharrekoa da lehenbiziko geldialdia: 1983an monumentu multzoa izendatu zuten, eta nabarmentzekoak dira **Trebiñuko Kondeen Jauregia**, berpizkundeko eraikinen ale zirraragarri bat, eta haren ondoan **San Pedro Apostoluaren Parrokia**.

Eliza horrek badu ama birjina zuriaren irudi ezin ederrago bat, eta atari interesgarri bat, XIII. mendekoa: bertan, egutegi bat ageri da zodiakoaren ikurrekin eta laborantzako lanen irudiekin. Haren barnean, hornidura gotiko bat, XIV. mendeko kristoarekin eta Aranaren taula interesgarriekin osatua.

Beste bisita ezinbesteko bat: **Lañoko multzo arkeologikoei** egin beharrekoa. Herrira sartzeko bidearen alde banatan **Santorkaria** eta **Las Gobas** leizeak aurkituko ditugu. Eraikuntza horiek, VI. mendean eremutarren babesleku gisa eraikiak, familiek hartu zituzten VII. mendean, handitu eta beren etxebizitzak eta elizak sortzeko bertan.



IX. mendean utzi zituzten, eta nekropoli gisa baliatu ziren XI. mendera arte.

Azken geldialdi nahitazkoa Gasteizera iritsi aurretik, **San Vicentejoko herrian**, **Sortzez Garbiaren baseliza** ikusteko. 1162an sortua, eskualde osoan bera da eraikin erromaniko garrantzitsuen; izatez, "Konderriko harribitxia" goitizena du. Eraikuntza bakarra da Europan, eta monumentu izendatu zuten 1994an.

Arte erromanikoaren beste erakusgarri interesgarri batzuk **San Martin Zar**, **Saraso** eta **Uzkianoko elizak** ditugu.

Argibideak

[www.condadodetreviño.es](http://www.condadodetreviño.es)

[www.turismocondadodetreviño.es](http://www.turismocondadodetreviño.es)

Tel. 945 101 070



### 3. IBILBIDEA

# LABRAZA·ANTOÑANA

#### Labraza

Nafarroako Antxo VII.a erregeak sortu zuen, XII. mendean, Gaztelarekiko lurralde gerren garaian. Guardiarekin batera, inguru hartan Nafarroako erresuman jarraitu zuten hiri gutxien arteko bat izan zen Erdi Aroan, XV. mendearen bigarren zatian behin betiko Gaztelak bereganatu zuen arte.

Seguruenik, historiaurrean du jatorria, zeren Burdin Aroko herrixka bat baitago handik hurbileko aurkintza batean, Corral Nuevo izenekoan; San Cristóbal de Labraza izan zuen lehenbiziko izena.

Erdi Aroan, gotorlekua izan zen, eta zeregin garrantzitsua izan zuen eskualde hartan gertatu ziren borrokaldietan, antzinako erresumen arteko mugako behatoki izateagatik. Herria inguratzen duten harresiak dira guduzko iragan haren lekuko, eta Erdi Aroko kutsu nabarmen bat ematen diote, hiri trazadura estuarekin eta harresien gainetik doazen igarobide elkarren gainekoekin batera.

Biztanleek harresia baliatu zuten beren etxebizitzaren barnealdeak hari atxikitzeko, eta leihoak

eta balkoiak ireki zituzten; etxebizitzetako batzuek, oraindik ere, ardoa egiteko upategi zaharrak gordetzen dituzte.

Hiribildura sartzeko hegoaldeko sarrera atarte baten petik doa, eta, barnealdeko arkuan, oraindik ere, burdin sareko hesiak lerratzeke kanalak dira agerian. Etxerik zaharrenak XVI. eta XVII. mendeetakoak dira, puntu erdiko arkudun atarteekikoak, eta Concepción kalean hilarri bat ageri da oraindik, Pero Fernand elizgizonaren oroigarri, zeina 1522an erail baitzuten.

Hiribilduaren baliabideak:

**Mairuaren iturria**, XIV. mendekoa, muinoaren hegalean zulatua, puntudun ganga harlanduzko baten pean. Kondairak dioenez, harresi barruarekiko komunikazioa zeukan, ezkutuko igarobide baten bitartez, setiatua izanez gero ur hornidura bermatzeko.

**Hiribilduaren antzeturiko bisitak**. Kontsultatu egutegia. Argibide gehiago Guardiako Turismo Bulegoan.

Tel. 945 600 845

Beste bisita batzuk. **San Migel Goiaingeruaren eliza**, Las Llanesko elur-zuloa eta





**Dueñasko pinudiaren erakusketa** administrazio-batzarraren aretoetan.

### **Antoñana**

Antoñana hiribildu gotortu bat da; Nafarroako Antxo Jakituna erregeak sortu zuen, 1182. urtean, antzinako gotorleku baten gainean, bi bide garrantzitsu elkartzen ziren lekuan. Alfonso VIII.a erregeak irabazi zuen Gaztelarentzat, 1239. urtean, eta hainbat jaunen eskuetatik igaro zen harrezkero, 1635. urtean hiribildu burujabetza lortu zuen arte, alde zurretik koroari ordainketa eginez.

Herriaren Erdi Aroko egiturak aldaketa gutxi jasan du denbora luzea igaro den arren, eta hiru kale paralelo ditu bereizgarri, iparretik hegorako norabidean, kanto, kalexka eta zurezko sabaidun pasadizoekin lotuak.

Kale Nagusiak bereizten ditu goiko eta beheko auzoak, eta herria zeharkatzen du jatorrizko

bi atek lotuz, jauregi erako hainbat eraikuntza dituelarik, harlanduzkoak eta XVI. mendeko armarridunak. Bisitariak dorretxe miresgarri bat ere aurkituko du, XIII. mendekoa, eta Erdi Aroko herri arkitekturadun etxe batzuk, sarrerako ateko harria eta zura dituztela elementu bereizgarriak.

**Harresia** du Antoñanak berezitasuna. Defentsarako sortu zen, eta, apurka-apurka, etxebizitzeari atxiki zitzaizkien, etxeen hormatzat erabili zelarik. Gaurko egunean, leihoak eta balkoiak ageri dira harresian, zulatuz eginak. Ate batek baizik ez du iraun, garaiera aldakorrekoa (5 eta 12 metro artean).

Antzinako espetxea ere harresian eraikia dago, eta, haren areto batean, objektu etnografikoak daude erakusgai jarrita.

---

### **Turismo bulegoa**

Tel. 945 410 226





Antoñanan, honako bisita hauek gomendatzen ditugu:

**Aguaquéko ur jauzirako bidezidorra.** Familia guztiarentzako paseoa, Antoñanako herritik abiatuta. 5, 4 km-ko ditu, eta 100 metroko desnibela.

**Izkiko parke naturala.** Antoñana, hain zuzen, parke babestu horretarako atean dago; parkeak badu bidezidor eta BTT ibilbide sare zabal bat.

[www.izkinatural.com](http://www.izkinatural.com)

**Vasco-Navarro ibilbide berdea.** Ibilbide berde honen interpretazio gunea, trenbide zaharraren bagoi batzuen barruan.

[www.viasverdes.com](http://www.viasverdes.com)

Izkiko golf zelaia.

[www.izkigolf.eus](http://www.izkigolf.eus)

### **Alaitzako eta Gazeoko margolan gotikoak**

Horrez gain, Gasteiza iritsi aurretik, proposatzen dizuegu margolan gotikoak ikustea Alaitzako eta Gazeoko eliza

erromaniko txikietan.

Antoñana igaro ostean, desbideratu beharra dago zenbait kilometroz, baina merezi du. Gazeoko **San Martin Tourskoaren elizaren** barnean daude gordeta Erdi Aroko margolan batzuk, zeinak 1967an aurkitu baitziren, erretaula nagusia kentzean: adituen ustean, XIV. mendean eginak dira, herritar letragabeei erlijio egitate batzuk irakasteko.

**Jasokundearen Santa Mariaren elizako murrua,** Alaitzan, ezberdina da. Margolanak ez dira hain landuak, baina bai harrigarriagoak. Gerra irudiak daude marraztuta, eta, oraindik ere, aztertzen ari dira zer esan nahi ote duten, nahiz eta balitekeen irudikatzea eskualdeak XIV. mendean bizi izan zituen gudu ugarietakoen uneren bat.

**BISITA GIDATUAK** bi tenpluetara Aguraingo Turismo Bulegoaren eskutik

Tel. 945 302 931





